En las camas del orfanato el silencio me despertó noche sí y noche también. A veces me despertaba sonámbulo y gritaba sentado al borde de la cama. Este comportamiento a menudo me tenía castigado durante días. Según me habían contado mis compañeros cuando chillaba decía el nombre de una mujer, pero nunca conseguían recordar su nombre. No sería hasta años más tarde, una mañana de reencuentro fortuito con mis compañeros de castigos, cuando uno de éstos me revelaría el nombre de la mujer que chillaba desesperadamente de niño.

Milagros, chillaba Milagros. Después de recordar esto él no volvería a recordar nada más y yo tampoco volvería a verle.

Mi padre trabajaba en una empresa, pero él no era empresario, para nada. Trabajó haciendo tornillos, pero eso fue después de la guerra, claro. Crecí creyendo que no tenía padre, que no existía. Tampoco que había muerto, o que nos había abandonado, simplemente ignoré esa figura, hasta que un día mi madre nos plantó en el salón de casa después de habernos bañado y vestido con la ropa de domingo, todos en fila, a mis hermanas y a mí. Se sentó y terminó las últimas puntadas del bordado que estaba haciendo para el pequeño ajuar de nuestra hermana la mayor, que pronto la edad y la época roja se la llevaría lejos de casa. Entonces nos explicó que la guerra había acabado, que nuestro padre bajaba de las montañas tras haber estado escondido años. Pregunté si se quedaría a vivir con nosotros. Mi madre suspiró y respondió que por supuesto que sí, y que a partir de ahora lo llamaríamos papá.

Nunca había sentido tanto frío como en aquel tren, el pensamiento me inundó la mente y no pude pensar en otra cosa. Me iba consumiendo, primero intenté calentarme pero luego me dí cuenta; no se puede combatir frío con más frío. Una punzada. Dos punzadas. Tres punzadas. Cada vez que el frío me daba un pinchazo lo contaba, hacía palitos mentales, hasta que llegue a la cifra cien, nunca había pasado aquella cifra, así que durante el resto del viaje hice formas abstractas con el frío. Hasta que todo empezó a dolerme demasiado, y no fui capaz de llevar a cabo la cuenta. Empezó a dolerme más que el llanto de mi madre, mucho más que las bofetadas de papá.

Había un armario en el comedor de la Providencia donde se guardaban los regalos que las familias mandaban a sus hijos. Yo nunca tuve nada con mi nombre en aquel armario. Cuando el insomnio me podía en los pabellones encamados recurría a ese armario. Desenvolvía, sacaba, mordía, rompía. No tenía motivos para hacerlo, y eso me parecía lo mejor. Tras eso nunca tenía problemas para conciliar el sueño. Lo dejaba todo allí, esparcido por el suelo, provocando a la mañana siguiente el enfado de las monjas y el malestar de los niños. Yo miraba impasible esta reacción, no tenía motivos para arrepentirme, tampoco los tenía para disimular, no había sido yo, me sentía libre de culpa.

Una de aquellas noches de nerviosismo mi cuerpo nocturno se levantó para bajar al comedor, pero un ruido dejó mi objetivo principal en segundo plano. Miré durante más tiempo del que me gustaría. Eran dos de ellas, a ambas se les veían los tobillos. Y a pesar de que creía que había dolor en el acto, luego entendí que había falta completa de éste, el goce de la acción era inmediato. Continué observando desde el marco de la puerta hasta que sus ojos se expandieron por toda la cara y me miraron sin moverse. Ahogaron un grito distinto a los anteriores. No hice esfuerzo por entender. Esa noche me dormí inquieto, tenía miedo de que me descubrieran como el acechador del armario nocturno.

Papá estuvo días en la cama, tiempo que se convirtió en semanas. Tenía la tarea de quedarme con él todas las tardes desde que mamá partía al pueblo más cercano hasta que se ponía el sol. Me miraba fijamente durante horas, sin hacerlo realmente. Si se dormía despertaba entre sudores y en ninguno de los casos decía palabra. Hasta que aquella tarde me senté en la silla que estaba cerca de la cama, pero esta vez la cama estaba vacía. Cuando se puso el sol y tras haber subido con dificultad las escaleras, él llegó a la habitación. Acercó mucho su cara a la mía, sentí como me subía la bilis por la garganta mientras me expulsaba con agresividad de la silla en la que llevaba sentado toda la tarde, esperándolo.

Pasé esa noche metido debajo de mi cama, escuchando los gritos de mi madre, los golpes secos y los gemidos de mi padre. Los escuché, llorando toda la noche. No me di cuenta de mis lágrimas hasta que toqué mi camiseta empapada y empecé a sentir la baldosa mojada en mis pies. Las noches de gritos y golpes se repetían cada vez que mi padre llegaba tras ponerse el sol. Años más tarde supe que no era él el que actuaba, era el ron, el mismo ron que lo mataría tiempo después.

No volví a acercarme al aparador del comedor de la Providencia. Como recompensa, una de las mujeres sin rostro empezó a darme premios que no me merecía. Empecé a ser el monaguillo de las misas más importantes, me dejaban salir a mandar las cartas e incluso había días en los que llegué a repetir plato en el comedor. Ella empezó a ducharme separado de los demás de los niños. Me repetía muchas veces que era para ayudarme a hacerlo, ella quería asegurarse de que yo estaba muy limpio. Me dejaba desnudo en el cuarto de libros, me observaba durante largos minutos, hasta que muchas veces se acercaba a mi y me tocaba, yo la miraba en silencio, escuchando su respiración agitada. Un día me daría cuenta que la respiración agitada era mía y no la suya. Un día me daría cuenta de todo lo que en aquel cuarto de libros sucedió fue un gran pecado.

Las lecciones que no queríamos entender nos las explicó la guerra, a la fuerza. Una mañana desperté con gritos de piedad y de terror. Una mañana me desperté con sangre en la mesa del comedor. Ellos debieron de pensar que no estaba en la casa, o así les hizo creer mi madre por lo menos; que estaban solos, que no había niños en la casa, *sólo mi marido y yo*. Aquella mañana los hombres sin rostro me atraparon bajando por las escaleras y me hicieron presenciar cómo le cortaban la mano a mi padre. *Así aprenderás, agarra a la mujer todo lo fuerte que puedas, que no aparte la vista, sienta al niño en la silla y que mire también*. Yo no diría palabra mientras lo hacían, ni tampoco volvería a abrir la boca en lo quedaba de navidades.

Los días festivos las mujeres sin rostro empezaron a despertarme más pronto de lo habitual, me llevaban a pueblos, a iglesias que no eran la nuestra. No solía querer ir y me revolvía como el niño mimado que no era. Luego cantábamos, en el coro me colocaban en medio y sonaba cuando los demás no lo hacían. Fue uno de esos festivos cuando la lluvia me debió de contagiar alguna enfermedad. Después de ese día me pasé mucho

tiempo en la cama, tanto que perdí la cuenta de los días. *Ya no volverá, ya no va a volver*, repetían ellas al borde de mi cama mientras me cambiaban el paño mojado de la frente, *ya no volverá tu voz angelical*.

Me despertaba entre sudores, y aunque sentía que tenía los ojos abiertos muchas veces me creía ciego, nunca llegué a saber si la fiebre me impedía ver o era la oscuridad a la que nunca me acostumbraba. A veces me levantaba, buscando un metal, agua o cualquier objeto frío que me aliviara. Pero lo peor sucedió aquella noche de calor, de mucho calor navideño. Y entonces lo ví, era enorme, grande, rojo, hacía que se me cerraran los ojos y que me ardiera el cerebro. Era malo, era peor que malo. Empecé a ahogarme, me ahogaba porque hasta que no lo matara se me iba a atragantar en la garganta. Todo me daba vueltas y mi mesilla de noche era enorme. Encima de ella estaba él, me sacaba la lengua y se alejaba y se acercaba a mi cuerpo en llamas mientras se reía. Me tapé los oídos, y le grité, quería que se callara, que dejara de reírse de mí, pero no lo hacía. Sentí cómo las lágrimas caían ardiendo por mis mejillas, no lo soportaba.

Quería pedir ayuda. Pero no había nadie, no eran ellas las que estaban allí, eran otras más pequeñas. Eran tan pequeñas que se metían por la boca y salían por todos mis poros. Salían una por una, luego se aburrieron de esperar y empezaron a rebosar en grupo. Me quemaban, me ardían la piel. Resonaban por todo mi cuerpo y me dolía cada vez más. Tenían que salvarme de él. Las mujeres sin rostro tenían que salvarme, tenían que salvarnos a los dos. Y venía, y ella gritaba, y cada vez era más grande y estaba más rojo. Estaba terriblemente asustado. Me temblaban los dedos de los pies y no sentía la cara. Si quería gritar, no podía. Nunca podía. Aquella noche la fiebre me hizo delirar, me dejó soñando con mi padre dándonos una paliza a mi madre y a mí, sólo que aquello no fue una alucinación.

Después de la fiebre que me contagió la lluvia no volví a cantar en iglesias que no eran las nuestras pero sí que ayudé en alguna misa por menos de una peseta. Tú cantabas allí, llevabas una coleta de caballo alta, no hablabas tanto como las demás, no paseabas por la Plaza del Castillo buscando a alguien que no conocías, tú no. Allí, en aquel domingo de misa, me caí encima tuya y me miraste, tú me dijiste que lo hacías por primera vez pero yo ya te conocía, ya te había visto antes. Me dijiste tu nombre pero yo ya sabía cómo te llamabas. Te conocía sin hacerlo, sabía quién eras sin saberlo. Eras tú, eras la chica de mis pesadillas. Eras mi única y mejor pesadilla, Milagros, Milagros, eras tú. Llegaste en el mejor momento y te quedaste. No nos salvamos queriendo, fue sin querer, lo prometo. Tal vez te preguntes por qué ya me habías marcado la piel mucho antes de conocerte, quizás te preguntes por qué lo hiciste para toda la vida aquel día, y hoy sé que nunca te lo voy a poder explicar.

Antes de que me llevaran a Pamplona él nos abandonó, lo hizo entre lluvia, lo hizo entre tormenta. Ya estábamos avisados, todos sabíamos que se iba a ir. Muchos días antes papá entró con los ojos inyectados en rojo y con las consecuencias del accidente que le robaría la vida. El metal se abalanzó desde arriba y no fue

capaz de pararlo. El ron les calló la boca a los gritos de sus compañeros, el ron le cerró los ojos y no vio venir el brillo del metal. El ron tampoco le dejó ver a la muerte llevándose, sin sorpresas ni trampas. Él nos rogó que no le permitiéramos ver cómo la muerte lo robaba de nuestro lado, no quería estar presente cuando llegara para hacerlo. Y así, por complacerlo por una última vez, mi madre lo mató con lo único que lo había mantenido vivo, lo mató con su único vicio. Murió ebrio de ron y sin decir palabra, tal y como había vivido.

Terminaste convenciéndome de cosas que no creía y que dije que nunca iba a creer. Me lo revolucionaste todo sin saberlo. Porque nunca lo supiste, no te lo dije. Como tantas otras cosas. Y esta noche de navidad, rodeado de todo lo que hemos construido te miro en la primera foto que nos sacaron delante de aquella iglesia por pura casualidad y me arrepiento de todo. De cómo nunca te dije te quiero, de cómo nunca te conté nada sobre la gente que se marchó de mi vida sin contármelo ni explicármelo. Y ahora miro cómo te has ido sin contármelo y mucho menos explicármelo. Tampoco podría entenderlo, pero quiero que hoy sepas, aunque sé que es tarde, que todo lo que no te dije, lo hice. Me salvaste veinte años tarde, pero cincuenta y cuatro, pronto.

ARRIESGAR

A veces
nos perdemos
sin darnos cuenta

A veces
solo jugamos
a ver quién nos encuentra

A veces
tan solo somos niños
tan solo somos almas
sin un destino escrito

Creciendo con el "puedo"
viviendo del miedo
persiguiendo aquello que nos deja ciegos
ardiendo en nuestro fuego

BAKARRA

SEI (A)

Gaur, seigarren urteurrena da. Ez dut egun hau batere maite. Ez zait atsegina egiten. Beti bezala, loreak eraman dizkiogu. Eskutan eman nahiko nizkioke. Beti bezain hotza izan da laukizuzen itxurako harri horren aurreko aldean bi ezkerre zuri uztea. Inoiz entzun dudan izenik politena dago bertan zizelkatuta.

Aurrenekoa izan ezik, beste bost aldietan bezain zaila egin zait egoera. Lehenengo hura, aldiz, ezin hobe gogoratzen dut. Jendez inguraturik geunden, guztion negar hotsak aitaren ahots moztuari gailentzen zitzaizkiolarik. Izozkailutik atera berri duzun izotz horrek igortzen duen hotzaren pareko sentsazioa. Hoztasuna. Neguko gau hotzenean kalera oinutsik irtetea erabaki izan banu bezala. Eskua luzatuz, hatzekin Ipar Poloa uki nezakeen. Hotza eta babes eza. Jaio berri den katu batek adina babes gutxi.

Denboraren poderioz gertuko norbaiten heriotzak sor dezakeen barne mina apal daitekeela dirudi. Denbora bihotz erdi hautsi edo guztiz zatitu bat josteko beharrezkoa den hariaren modukoa da, eta norberaren saiakerak, orratzak. Horrela ekiten diogu faltan botatzeak eragiten digun mina labaintzeari, falta sentitzea zeinen polita den balioetsi beharrean. Horregatik erabilgarriak gerta lekizkidakeen orratzak atera ezin diren leku batean gorde nituen. Gertakizunen eta egunerokotasunean bizitako gertapenak nire bihotza jostiaz arduratuko zirela erabaki nuen. Bitartean, falta sentitze horrek eragindako barne mina mirestuz egin diot aurre, falta sentitzea bortizki maitatzea baita. Maitasun nahian eskuak goraka dituen haur txikitxo baten moduko egoeran aurkitzen da bihotza edozein motako falta sentitzen dugunean.

Aldiz, nire barne minak hotza izaten jarraitzen du. Neguan itsasora oinutsik sartzeko ohitura hartu izanaren moduko hotza.

Menderaezin eta zoritxarrez, aldaezina den barne hotza.

HIRU (B)

Gaur, hirugarren urteurrena da. Gogoan dut mitxoletak eskuetan jarri zizkidatenean gertuko egoera baten parte nintzela senti nezan. Sinesgaitza suertatu zitzaidan egoera.

Jendez gainezka omen zegoen ingurua, entzuten nuen ahots kopuruarengatik diot, ez baitakit zenbat pertsona zegoen bertan.

Mitxoleta sorta eskuetatik kendu ostean, lurrean jarri zituztela esanez egin zidan lehengusuak belarrian hasperen. Harri zizelkatu baten aurrean jartzen zirela esan zidan geroago.

Zizelkatutako izen horren itxura ikustea gustatuko litzaidake. Hainbestetan entzundako izen hori nola idatz zitekeen ikustea, ezin baitut ahotsa ez den beste inondik jaso.

Dena burura datorkidanean, bere izenaren itxura hartzen duen irudia omen duen xaflatxo baten gainetik pasatzen dut hatza. Puntu txiki ugari zuhurra den burdinezko erliebe bat osatzen dute, izena osatzen duten hizkiak ordezkatu nahian egin zidatena. Nire logelako atean dut jarria.

HUTSIK (A)

Nire ahotik atera diren azken hitzak egun horretan bertan izan ziren. Berarengandik jaso nuen hizkuntzarekiko maitasuna. Hitz egiten baino, hitzak maitatzen irakatsi zidan. Esaldiei edertasuna aurkitzen eta hitz bakoitzak eragin ditzakeen sentipenen berri eman zidan. Hitz bakoitza osatzen duten hizkien forma maitatzen.

Soinuen maitale bihurtu ninduen. Hizkiek sorrarazten dizkiguten soinuen maitale, bereziki. Hitz bakoitzak barruan daraman informazio guztiaz jabetzen lagundu ninduen. Esan nahi nuena esan nezan, beharrezkoa nuen hitz egokia hautatzeko baliabideak irakatsi zizkidan. Esaldien edertasuna ikusten, entzuten eta ahoskatzen. Azkenean, berak bezain polit hitz egitera bultzatu ninduen. Horregatik izan ziren egun hartakoak nire azken hitzak.

Horregatik gelditu nintzen hutsik.

BETERIK (B)

Batzuetan, gehienetan esatea bortitzegia baitirudit, amorruek baretasunari irabazten dio. Sarritan ematen den gertakizuna, esan dezaket. “Ez al duzu ikusten?”, “Begira zeinen polita den hori!”, “Zeinen kolore polita!” motako esaldiak nire amorruearen pizgarri ederrena dira. Gorroto dut horrelakoak galdetzen dizkidatenean.

Ez. Zin dagizut ez dakidala zeinen polita den zuk diozun kolorea. Zin dagizut ez dakidala zuretzat hain sinplea den eguzkiaren argia nolakoa den. Zin dagizut ez ditudala koloreak behin ere ikusi.

KOLOREZ (A)

Hutsik sentitzearen ondorio izan da urteekin jasan izan dudana bilakaera. Hasiera batean hitzak ez erabiltzearen ondorioz koloreak maitatzen hasi nintzen. Hitzek nire barruan gordetzen zuten berezitasun hura koloreek sorrarazten zutenarengatik ordezkaturata izan zen. Ez dakit non hasi eta non bukatzen den zehazki kolore bakoitza, ezta zer objektu egoki diezazkiokedan bakoitzari. Jendeak oso argi izaten du normalean. Ez da nire kasua.

KOLORE(B)

Betidanik izan dira hitzak nire lagun, soinuak oso gertuko eta ukimena ezinbesteko. Ezin du beste modu batean izan. Ez dut egunerokotasuna gidatzeko beste modurik aurkitu. Zorionez, aitak bakarrik gida nadin erakutsi zidan. Etxetik bakarrik irten naiteke, baita kalean nire kabuz ibili ere. Dena kontrolpean daukat. Etxeko atea aurkitzeko, egin beharrekoak sinpleak dira.

Nire logelako atletik hasita, bi pausu aurrera eta hiru ezkerre, segidan bi eskuin eta bost zuzen, angelu zuzeneko bira eman eta bi pausotan atearen aurreko aldean kokatzen naiz. Gazteagoa nintzenean, aitak atearen ondoan imana duen xafla bat kokatu zuen, eta nire giltzetan beste bat ipini, hortaz giltzak topatzeko eskuineko eskua paretaren kontra dudalarik gora eta behera mugitu behar dut, giltzekin tupust egin arte. Igogailua atera eta bost pausu aurrera egitearekin, aski. Botoia nire aldakaren parean dago, hortaz, eskuragarri.

ZEBRA (A)

Zebrabidea zeharkatu behar dudanean soinuaz baliatzen naiz. Bai. Kolore aldaketa omen dago, baina ez zait desberdintzea erraza egiten.

- Berde!!

Hori da zebrabidea zeharkatzeko seinalerik ziurrena. Orain ikasia dut. Autoentzat argia mantentzen ez denean eta kliskatzen egotekotan, pasa naiteke! Aldiz kolore gorria ongi ezberdintzen dut. Baina ez dakit jendeak oso argi duen. Zuhaitzen enborrak marroiak direla diote. Gezurti hutsak dira. Zuhaitzen enbor eta semaforoaren kolore horren artean ez dago ezberdintasunik. Semaforoan “berde” deitzen duten hori eta teniseko piloten artean kolore ezberdintasunik ez dagoen bezala.

Kolokan egon arren, ez dut inoiz ez nire burua edonori galdetzeko prest ikusi. Hitzak erabiltzen uztearekin batera hitz egiten uztearena, edozeinekin elkarrizketa bat izatearena eta jendearekin harremana izatearena bat zetozen.

Irakurritako eta ikusitakoarekin aski nuen koloreen mundu berri bat sortzeko. Bakarra. Nirea. Baina aspertu egin nintzen. Urteak neramatzan paisaia bera ikusten, taberna berdina zeharkatzen eta kale berak ikusten. Aldaketa bat beharrezkoa nuen. Aspertuta nengoela ikusi bezain pronto, etxe aldaketa bat beharrezkoa nuela jakin izan nuen.

AMATXO (B)

Ama ni erditzerakoan hil zen. Ez zen dena behar bezala gertatu. Horren ondorioz, bizitza berri baten sorrerak beste baten amaiera ekarri zuen. Zoritxarrez, aitak gaixotasun larri bat pairatu behar izan zuen eta duela hiru urte eta hiru egun zendu zen.

Kontrolpean ez dudana guztiaren beldur naiz. Monotonia batean sartu naiz eta zorionez, oztoporik gabeko egunerokoa daramat etxean bizi den bakarra naizen arren.

Gaur goizean bizilagunak eta biok topo egin dugu. Bere arnasa zenbat eta hurbilago sumatzen nuen betiko “Kaixo!” hitzak ematen didan sustoaren ondotik. Bat-batean nire

belarriaren ondoan sentitu dut. Ikusten ez dudanez, ongi entzuten ez dudala bere kabuz ondorioztatu eta oihuka hasi zait:

-OBRETAN HASIKO DIRA GUTXI BARRU! KASU!

Beti izan dut eraikinaren plano nire buruan. Beti jakin izan dut nolakoa den, eskailerak izan ezik. Eskailerak ez ditut behin ere zapaldu. Ikusten duen norbaitek aurrera begiratzen duen bitartean eskailerak atzeraka igo behar izatearen pareko litzateke nik eskailera arrunt batzuk jaistea. Hori eta sartu beharko nizkiokeen orduak, alegia.

BERRIKUNTZAK (A)

Urrun, hemendik kanpo, barruan ditudan sustraiak nolakoak diren nik jakin dezadan, ondoan ez zegoen nonbaitera jo behar nuen. Hori dela eta, duela aste pare bat bilatzen nenbilen egoitza, ezezaguna egiten zitzaidan herrixka batean aurkitu nuen. Pare bat moldaketa egin behar omen zituzten, ez baitzegoen norbait hara bizitzera sartzeko moduan.

HASIERA (B)

Moldaketa lanak hasi dira eta ez da batere atsegina. Goizean goiz jaiki naute, egun guztian zehar zarata deseroso bat entzuten egon behar izan dut, eta horretaz gain, igogailua geldiarazi dute. Ederki. Primeran. Ez zaigu guztioi eskaileretan gora eta behera ibiltzea hain erraza egiten. Bosgarren solairuan bizi naiz.

Hanka bat eskailera bakoitzean jarri eta bertan oina pixka bat irrista dadin utziz, hurrengo eskailerak non duen hasiera asmatzen dut. Hori da dudan bide bakarra. Nire kabuz igo eta jaitsi nahi dut nire etxetik, betidanik egin dudan zerbait da, ez dut inoren laguntza behar, nire kabuz joan nahi baitut eguneroko gauzak egitera.

Ogia erostea abentura itzela bilakatu zait gaur goizean. Erosketa saskia eskuan neramalarik eskaileretan gora egitera ausartu naiz. Hori bai hori eguneko bigarren abentura! Agian abenturazale ederra naiz eta konturatzeko momentua iritsi zait.

Gezurra.

Ken ditzatela edo buka ditzatela lan madarikatu horiek. Ez dut denbora luzez iraunen egunero horrela ibili behar baldin badut. Bestearen zorionerako ez dut inoiz jakinen nor den lan moldaketa guzti hauen erruduna, ez baitiot aurpegia inoiz ikusiko. Hori bai, inork baino hobe badakit usain eta arnas hotsak ikasten.

Nor den asmatuko dut. Nire solairu berekoa izanen da.

SUSTRAIAK BILTZEN (A)

Bere ordezkotzat hartu zuen aitak. Nik ordea, ama ordezkapenik gabeko norbait bezala gordetzen jarraitzen dut. Agian horrek eman dit behar nuen azkeneko bultzadatxoa. Etxea hankaz gora jarri zuen eta aitak nirekin pasa beharreko denbora guztia berarekin igarotzen zuen.

Aitak barruan gordetzen zuen bihotz zatituari apositu bat jarri eta horrekin aski zela zirudien. Josi gabeko barne zauri horrek minik ematen ez ziola zirudien. Oroitzapenik gabeko norbait. Aitaren begiek ez dute beste kokagunerik orain.

Aitak sustraiak ahaztu zituen.

Aitak ama ahaztu zuen.

Aitak ni ahaztu ninduen.

BELARRI MINA (B)

Gaurkoan pozak apaltasunari irabazi dio. Hamar eta huts.

Belarrira hurbildu eta oihu egin didate. Oraingoan lehengo egunekoaren aurkakoa esatera.

-BIHAR LAN MOLDAKETAK BUKATUKO DIRA!

Aurrekoan ez bezala, oraingoan, oihuak poztu nau. Nire tinpanoak eskertuko ez lidakeen poztasuna, izan liteke, baina tira, eskailera abenturen bukaera zela esan nahi zuen horrek.

EGOKITZEN(A)

Kutxa xume batean sartu ditut nire objektu guztiak. Ez nuen lehengo etxeko gauza askorik ekarri nahi. Oroitzapenak, bere argazkiak eta berak idatzitako koadernoak.

Hemengo sofa txiki batean eseri naiz, nire bizitza izanen denaren hasieratzat har nezakeen momentu hau. Beti irakasten den bidetik ihesa, nire bide propioari hasiera emateko aukera, agian.

Ez dut inor ez ezagutzen.

Askatasuna.

NOR DEMONTRE (B)

Ailegatu da. Iritsi da. Usain oso goxo bat ekarri du. Ez du iskanbila handirik sortu, eta nire igogailuaren itzulera ekarri du.

Oso gertutik pasa omen da, bere usaina eta arnasketak nabaritu baititut igogailutik ateratzean.

EZEZAGUNEN GUNE (A)

Ezezagunak ezagun egiteko momentua iritsi da. Nire solairu berean bizi den gizonak ez nau gaur goizean agurtu. Ez dakit zer nahiago dudan. Zerbait esatekotan, erantzun baten esperoan geratuko da, nire ahotsaren esperoan, nire hitzen esperoan.

Igogailutik ateratzen ari zen ni sartu naizenean. Zorionez, gaurkoan ez da egoera hori suertatu.

NIRE IGOGAILUA (B)

Duela pare bat ordu igogailura sartzeaz nintzela, lehengo eguneko usain goxo bera antzeman dut. Arnasketa azkarra berea. Urduri omen zegoen, bestela, korrika egitetik zetorren, ezin dut zehaztu, baina bere hitzen esperoan nengo.

Agurtuko al nau? Nik ez dut ikusten, baina nabari dut.

Agian berak ez nau ikusten.

Astebetean bitan gurutzatu gara eta atsegina egin zait.

URDURITASUNEZ (A)

Giro aldaketak zerbait berezia sortu du nire barrualdean. Gaurkoan hitzen batek nire ahotik atera nahi zuela sumatu dut.

Gaurkoan hemengo osasun etxera joan naiz. Oso atseginak dira. Hainbat ordu eman ditut haiekin. Haiek egindako galderei ez erantzuteak bortitza zirudien egoera sorrarazi du. Ez naute ezagutzen. Ez dakite zergatik ez dudan hitz egiten. Isiltasuna gelaren jabe zen. Aldiz, espero ez nuen laban baten moduan jaurtitako esaldi batek isiltasuna apurtu du. Horren ostean, lasaitasun hitzak isiltasunari gailendu zaizkio.

Etxera bueltatu naiz. Oso urduri nengo. Berari bezala. Berari bezala. Berari bezala. Berari bezala. Hori zen nire buruan entzuten nuen esaldi bakarra. Atea ireki eta lehengo asteko bizilaguna omen dena. Atea irekitzean aurpegira begiratu diot, ez zen keinurik nabarmentzen, baina sudurra mugitzen zitzaion. Ikusten zaion bakarra da. Eguzki betaurrekoek ez baitute bere aurpegiaren beste zatirik ikus dadin uzten.

Ez nau agurtu. Agurtuko banindu ez dakit zer erantzungo niokeen. Urduritasun mailak gora egin du nire barnean. Etxera iritsi eta sofan eseri naiz, hemen nago, burutapen guztiak idazten.

Berari bezala. Berari bezala.

Saihestezina den bukaeraren beldur izan naiz beti. Iluntasuna. Hotza. Duela sei urteko hotz bera zainetatik gora etorri zait gaurkoan. Horregatik atsegin ditut koloreak. Bukaerak beldur ematen didalako. Neguko zaparradetan ekaitzek sortzen duten argia bezain bat-bateko. Trumoiak sorrarazten duten soinua bezain itzel eta sakona izan da gaurkoa.

Hemen egonen balitz, bere hitzak entzutea posible balitz...

Zorionez, badakit zer esanen lidakeen. Bizi. Hori zen berak gehien maite zuen hitza. Min aurrizkia jarri behar izan zionean ere, kendu egiten zion. Bizi. Soilik bizi. Gogoan dut nola esaten zidan.

Orain, aurrizki hori kentzea, niri dagokit. Hori egiteko lehen urratsa nire ahotik hitzen jarioari hasiera ematea da. Bizilaguna, bai. Ni bezain isila izan da orain arte. Kolokan utzi nau gaur ere ez agurtzeak.

(Igogailuaren hotsa entzuten da)

Badator. Badakit zer egin.

BERO (B)

Gaur beranduago iritsi naiz etxera. Kanean eguzkiak jotzen zuen, egun beroa, egun atsegina.

Sofan eserita nago. Bizilagunaren usain goxo hori honaino iristen da. Agian kolonia potea nire atearen aurrean hustu du, ez nago oso ziur, baina gehiegi usaintzen du.

Arnas azkar bat entzuten dut. Ez da arnas azkartu hori entzuten dudan aurreneko aldia. Zorionez, ez ikusteak sentitzen ikastera eraman nau. Arnasketa huts batekin gertu dudan norbaiten sentipenak nolakoak diren antzeman dezaket. Ez guztiz, baino horrek liluratzen nau. Ez naiz begietaz fio. Soinu eta usainen fio naiz, horren eta hitzak esateko moduen zale. Gizakion artean sor daitezkeen egoeren zale, ikusi gabe senti dezakedan guztiaren eta esaten didatenaren zale.

Arnasketa horrek ez du geldiunerik. Oso urduri dago, eta nire etxean sartu da. Ezaguna izanen da? Ez dut uste. Ez nau agurtu. Ez nau agurtu. Usaina. Ez nau agurtu. Ez dakit zein izanen den bere ahotsa, baina ahots erdi moztu bat izanen duelakoan nago.

(-“Min”)

Hitz egin du. Negarrez dagoela dirudi. Tristura nabari zaio. Ez dakit non kokatu den zehazki. Ate ondoan omen dago, oso apal hitz egin du eta arnasketa azkartu egin zaio. Nonbaiten berri izateak sor dezakeen beldurraren ondorio izan daiteke horren isil izatea. Ez entzutearena eginen dut. Agian berriro zerbait esanen du. Bitartean gauzak pentsatzeari ekinen diot.

Gaiztasunik gabeko norbait dela uste dut. Hemen dago, azkar arnasten eta apal hitz egin du, zerbait esan nahiko al dit?

(-“Bizi”)

Bizi zer? Nik bizi behar dudan zerbaitez ari al da? Nire erantzunaren esperoan dago? Zer egin behar dut nik orain? Noraezean koka dezaket nire burua. Ez diot ezer galdetu nahi.

(Atearen hotsa)

Joan da. Orain zer? Nik bere etxera joan behar al dut bi hitz esatera? Nik bakarra esanen diot. Hitz bakarra. Bakarra. Ez pare bat. Min. Bizi. Bakarra. Aita.

Minbizi.

ZIURRA ZIURGABE DENEAN

Erori ziren hostoak
malkoak bailiran
udazkenak izandako negarraldi hartan
libre izango zirelakoan amildu
eta zapaltzen dituzte kris-kras
grabitatera kondenatutako lur goibeletan.

Erori ziren begiradak
ateak itxiz erreko zituen kanpoaldetik ihesean
betazalak hetsiz errealitatetik aldenduta.

Jausi ziren malko leunak
atzamar bihurtuta,
zauriak orbain
eta orbainak zauri bilakatuta.

Erorialdia saihestuz oreka daramagu euskarri
eta izaturik gabilitza
erlojuaren orratzek bultzatuko gaituztelakoan
segundo batzuk azkarregi igarotzen baitira,

besteak motelegi.

Noraezean gabiltza, erortzearen beldur garelarik

ipar haizea itsu, norabidea aurkitu ezinik

galdu dugu norantza

eta “nora” hitzaren esanahia

ez daukagu ipar orratzik,

ardatzik.

Erortzear ...

egiak zintzoegiak

gezurrak maltzurregiak iruditzen zaizkigun bakoitzean

ziurra ziurgabe bilakatzen den aldi guztietan

zutik bagaude ere,

aspaldi erori ginela

bizitzaren kontraesanetan.

Ainhoa Andueza San Miguel (16 urte)